

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Fundación Estadio Sociedad Deportiva Fundazioa enpresaren hitzarmen kolektiboaren aldaketa akordioa

Ebazpena, Lan eta Justizietako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkarirena. Honen bidez ebazten da Fundación Estadio Sociedad Deportiva Fundazioa 2015-2018 enpresaren hitzarmen kolektiboaren aldaketa akordio erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren Kodea: 01002752012000.

AURREKARIAK

2019ko urtarrilaren 7an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko negoziazio batzordearen akta, enpresaburuena eta langileen ordezkariek 2017ko urriaren 16ko negoziazio-mahaian sinatutakoa, 36. artikulua moldaketarako kariaz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren negoziazio batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 25a

Arabako Lurralde ordezkaritzako idazkari nagusia, ordezkarirena ordez, hala ezartzen du 2017/84 Dekretuaren 15.2 artikulua (2017ko apirilaren 21eko, 76. zk, EHAA)

CRISTINA VEGAS EGAÑA

Estadio Sociedad Deportiva Fundazioaren hitzarmen kolektiboa

Akta

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urriaren 16ko 13:00etan, Estadio Fundazioaren lokaletan bildu dira Estadio Sociedad Deportiva Fundazioa enpresaren (aurrerantzean Fundazioa) hitzarmen kolektiboko negoziazio-batzordearen bokalak, zertarako eta 2015-2018 hitzarmen kolektiboaren 36. artikuluan aldaketak egiteko, batzorde parekideak izandako bileren ostean.

1. Alde biak ados egon dira 2015-2018 hitzarmen kolektiboaren 36. artikuluko azken testuarekin, hain zuzen ere, honekin:

36. artikulua. Heriotza- edo elbarritasun-kasuetarako segurua

‘Estadio Fundazioak konpromisoa hartzen du lanean diren beharginen heriotza-kasuetarako edo elbarritasun iraunkor absolutuko kasuetarako, arrazoia edozein dela ere, aseguru-poliza kontratatzeke, 30.000 euroko kalte-ordaineko estaldurarekin.’

Akta sinatzeari ekin diote, eta lan-agintaritzari igorri diote, erregistratu eta ALHAOn argitaratu dadin. Halaber, Estadio Fundazioaren zuzendaria hautatu da, erregistro hori izapidetu dezan, aintzat hartuta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuan esaten dena.